



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Iris Candelaria sopranoak eta Rubén Fdez. Aguirre piano-jotzaileak Lied eta kontzertu-abestia uztartzen dituzte, Sibelius eta Granadosen lanak interpretatuz

- Kontzertua Lied Arriagan zikloaren parte da eta bihar, asteartea, maiatzaren 19an, izango da, 19:30ean antzokiko foyerrean.

Bilbon, 2026ko maiatzaren 18an.- Arriaga Antzokiak LIED ARRIAGAN zikloaren laugarren edizioari ekingo dio berriz bihar, asteartean, zeinak formatu txikiko errezitalak eskaintzen baititu, pianoarekin eta ahotsarekin, oro har, Arriaga Antzokiko foyerreko giro intimo eta atseginean.

Iris Candelaria soprano hispano-finlandiarrek, Europako panorama lirikoan goraka doan etorkizun handiko ahotsak, Arriaga Antzokian egingo du debuta, Rubén Fdez. Aguirre piano-jotzaileak lagunduta. Helsinkiko Sibelius akademian graduatu zen. Hainbat rol interpretatu ditu, hala nola Zerlinarena (*Don Giovanni*) eta Constance (*Dialogues des Carmélites*), Finlandiako Opera Nazionalean, eta Kantari Gazteen programa ospetsurako ere hautatu dute bertan.

Kontzertu honetan, lieda eta kontzertu-abestia uztartzen dituen programa finaz gozatu ahal izango du publikoak, espainiar eta finlandiar errepertorioari arreta berezia eskainiko diona. Zehazki, programa Jean Sibelius konpositore finlandiarraren lanek eta Lleidako Enrique Granadosen piezek osatzen dute. Zalantzarik gabe, konbinazio hau oso interesgarria da errezitaldi mota hau gustuko duten entzuleentzat.

Egiten dituen errezitaldietan, Irisek liluratu egiten du bere lirismoarekin, presentzia eszenikoarekin eta musikaltasun finarekin. Ruben Fdez. Aguirrek pianoan duen maisutasunarekin batera, sentsibiltatea, teknika eta emozioa izango dira nagusi emanaldian.

Lied Arriagan zikloa

Arriaga Antzokia Lied Arriagan zikloaren laugarren edizioa egiten ari da denboraldi honetan eta, aurrean ere, Rubén Fdez. Aguirre maisua da zikloaren koordinatzailea. Ilker Arcayürek eta Malcolm Martineauk inauguratu zuten edizioa iazko azaroan, eta jada 2026an, hurrengo kontzertuez gozatu dugu: Ferrán Albrich eta Rubén Fdez. Aguirre, Hera Hyesang Park eta Fdez. Aguirre bera, eta Juan Laborería eta Carmen Santamaría. Azken bien protagonistak Iris Candelaria eta Rubén Fdez. Aguirre (bihar asteartean, maiatzaren 19an), eta Marisa Martins eta Miquel Ortega izango dira (ekainaren 9an).

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 18 euro (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus